

# IGE-AK ANTOLATU ETA KUDEATUTAKO JARDUEREN KONTINGENTZIA-PLANA

(2021EKO IRAILA)

## 1.- KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

## 2.-IGEAK ANTOLATUTAKO ETA KUDEATUTAKO JARDUEREN KONTINGENTZIA-PLANA

- Prebentzio-neurri orokorrak
- Espazioak eta aldagelak erabiltzea
- Jardueraren sarrerak eta irteerak
- Begiraleentzako jarraibideak
- Familiekiko harremana
- COVID kasuen kudeaketa

## I. ERANSKINA. BAIMEN INFORMATUA

## KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDI GARRANTZITSUAK

Hauek dira familia eta ikasleentzako jarduera formatiboak eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko orduan kontuan hartu behar dituzuen alderdirik garrantzitsuenak:

- Guraso-elkarteak antolatutako jardueren kontingentzia-plana edo protokoloa egitea (jarraian, dokumentu marko bat duzue). Plana ikastetxearen kontingentzia planarekin bat etorri behar da.
- Plan hau eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzten seme-alaben familia guztiei eman beharko zaie, eta horiek, gainera, txostena jaso dutela egiaztatzen duen dokumentua sinatu behar dute (l. eranskina).
- Enpresa bat kontratatzen baduzue, enpresak bere kontingentzia-plana eman beharko dizue.
- Jarduera guztiak ikastetxearen urteko planean jasota egon behar dira. Aurreikus itzazue ikasturtean zehar antolatuko dituzuen guztiak, berehala egiteko asmorik ez baduzue ere, IUPren barruan sar daitezten.
- Bizikidetza-talde egonkorrak mantentzea. Espazioa partekatuz gero, taldeen arteko segurtasun-tartea mantenduko da. (Adibidez, pintura-jarduera bat egin dezakegu bi bizikidetza-taldetako ikasleekin leku berean, baina bi taldeen arteko distantzia mantenduz eta guztiek maskara jantzita)
- Eskolaz kanpoko jardueretan Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikasleek parte hartuko dute.
- Familiantzako jarduera formatiboak eta IGEaren bilerak egin ahalko dira.

- Ikastetxeko COVID arduraduna nor den jakitea, edozein arazo edo gorabehera aipagarriren berri izan dezan.
- Ikastetxeko zuzendaritzarekin hitz egin beharko dugu erabiliko dugun espazioaren ordutegia koordinatzeko.
- Espazioa zabala, irisgarria, ondo aireztatua eta, jakina, erraz zaintzeko modukoa izan behar da.
- Guraso edo tutore bat izendatzea, begiraleekin eta formatzaileekin harreman zuzena izan dezan.
- Balora ezazue kontratatu beharreko begirale kopurua, jarduera motaren, burbuila-taldean eta espazioaren arabera.
- Burbuila talde desberdinetako haurrak nahastuko badira, saia zaitzte ikasturte edo ziklo berekoak izaten.
- Balora ezazue zer kontratu mota komeni zaizuen gehien elkarte gisa, eta gogoratu ikasleekin harremanetan dauden begirale guztiek sexu-delituen ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dutela.
- Kontratazioaren baldintzak ituntzea, ikastetxea itxiko balitz edo COVID19ren ondorioz zerbitzua etengo balitz ere. Eredu bat duzue gure webgunean: <https://www.ehige.eus/eu/bige-dokumentuak-kudeaketa-eta-antolakuntza/>
- Jardueraren hasieran fidantza bat ezartzeko aukera baloratzea, ikasturtea amaitzean berreskuratu ahal izango dena (baja emanez gero, fidantza ez da itzuliko).

## GURASO-ELKARTEAK ANTOLATU ETA KUDEATUTAKO JARDUEREN KONTINGENTZIA-PLANA

Dokumentu marko bat proposatzen dizuegu, zuen beharretara egokitu dezakezuen. Kontingentzia-plan hau ikastetxeko zuzendaritzari aurkeztu behar diozue, jarduera-planarekin batera, Ikastetxearen Urteko Planean txerta dadin.

### **Prebentzio-neurri orokorrak.**

- Garbitu eskuak jardueraren hasieran eta amaieran.
- Maskara: jardueretan parte hartzen duten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasle guztiek eta familiek maskara behar bezala jarrita eramango dute.
- Guraso-elkarteak maskarak izango ditu, behar izanez gero, baita gel hidroalkoholikoa ere.
- Joan-etorriak: ez da joan-etorriarik egingo ikastetxeko eremu komunitatik. Egin behar izatekotan, 1.5 metroko distantzia mantenduko da.
- Gosaria edo merienda antolatzen bada, ahal dela, aire zabalean egingo da. Barruan bada, aireztapen egokia bermatuko da.
- IGEak eramango ditu jarduera bakoitzean behar diren materialak. Objektuak parteka daitezke, jarduera egin aurretik eta ondoren eskuetako higieua eginez, eta materialak garbituz talde-aldaketen artean
- Aireztapena: espazioak aireztatuta egongo dira, airea berritzen laguntzeko.
- Komunen erabilera: txandak antolatuko dira, hainbat pertsonak aldi berean bat egin ez dezaten

### **Espazioak eta aldagelak erabiltzea.**

- Ikasgela espezifikoak (liburutegia, musika, informatika, inglesa...): erabili aurretik eta ondoren, erabiliko diren mahaia eta aulkiak garbituko dira.
- Espazio komunak (gimnasioa, psikomotrizitate-gela...) erabail daitezke.
- Aldagelak: jarduerarako behar den arroparekin joango dira, eta ez dira erabiliko. Erabili behar izanez gero, begiraleak ezarriko ditu erabilera-baldintzak, beti ere distantziak eta higiene-neurriak mantenduz.
- Espazio irekiak (jolastokia eta aterpea): ahal den guztietan espazio honen erabilera lehenetsiko da.
- Ura edateko, ikasle bakoitzak bere botilatxoa izango du (izena adieraztea gomendatzen da, nahasterik egon ez dadin).

### **Jardueraren sarrerak eta irteerak.**

- Sarrerak eta irteerak modu ordenatuan egingo dira, distantziak mantenduz.
- Jardueraren hasieran, begiraleak leku zehatz batean itxarongo du bere taldea eta ikasle guztiak bertaratu direla egiaztatuko du. Ondoren, elkarrekin joango dira eskuak garbitzera eta jardueraren espaziora.
- Irteeran, begiraleak modu ordenatuan irtetzen lagunduko dio taldeari.
- Familien formakuntzaren kasuan, distantziak mantenduko dira sarrera-irteeretan eta banakako sarrerak ekidingo dira.

## Begiraleentzako jarraibideak

- Begiraleak maskara (kirurgikoa edo FFp2) eramango du jarduera osoan zehar, eta eskuak behar beste garbituko ditu.
- Bere taldearen zain egongo da adierazitako lekuan.
- Bertaratzeen, hutsegiteen eta gorabeheren kontrola egingo da.
- ikasleek uneoro maskara modu egokian erabiltzen dutela egiaztatuko du.
- Ikasleren batek jardueran zehar COVID-19aren sintomak baditu, begiraleak familia abisatuko du berehala, bila joan eta bere osasun-zentroarekin harremanetan jar daitezten. Ondoren, guraso-elkarteko arduradunari jakinaraziko dio, eta azken horrek ikastetxeko zuzendaritzari.
- Jarduera irauten duen bitartean haurrak ekintzaren esparruan daudela zainduko du.
- Hurrek distantziak gordetzen dituztela, maskara uneoro jarrita dutela eta higiene-arau egokiak betetzen dituztela baieztatuko du.
- Zaindu eta kontrolatuko du komunak behar izanez gero bakarrik erabiltzen direla, eta hurrek higiene-neurriak betetzen dituztela erabili aurretik eta ondoren.

• Begiraleren batek COVID-19ren sintomak baditu, ez da ikastetxera joango eta guraso-elkarteari jakinaraziko dio. Elkarreak zuzendaritzari jakinaraziko dio eta langilea bere medikuarekin harremanetan jarri beharko da.

### **Familiekiko harremana.**

• Familiak guraso-elkarteari harremanetan jartzea erraztuko da, edozein gorabehera jakinarazteko (telefonoa, posta elektronikoa, aplikazioak, etab.).

• Familiek kontaktu bat edo batzuk emango dizkiote guraso-elkarteari, behar izanez gero harremanetan jartzeko.

• Guraso-elkarreak antolatutako jardueretan parte hartzen duten eta COVID-19 sintomatologia duten ikasleak ez dira ekintzara bertaratuko (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).

• Familiak garaiz joango dira seme-alabak jasotzera jarduera amaitzean. Bakarrik joateko baimena ematen badiete, guraso-elkarteari aurkeztuko diote baimen hori.

### **COVID kasuen kudeaketa.**

• Begirale guztiek parte-hartzaileen zerrenda bat izango dute, familia aurkitzeko beharrezkoak diren datuekin.

• Jardueran zehar ikasleren batek COVIDarekin bateragarriak diren sintomak baditu, gainerako parte-hartzaileekin kontaktuan ez dagoen beste gela batera eramango da. Berehala familiari deituko zaio, haurren bila etor dadin eta osasun-zentroarekin harremanetan jar dadin. Era berean, ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko zaio.



1. ERANSKINA BAIMEN INFORMATUA

Familien konpromisoa eta adostasuna. (Seme edo alaba bakoitzeko orri bat bete)

Eskolaz kanpoko jardueretan (Kiroletakoak, artistikoak, kulturalak eta zaintzak...), parte hartzeko baldintzak, informazioa emateko betebeharra eta baimen informatua onartzea.

IZEN-ABIZENAK .....

N.A.N. ZKIA. ....

TELEFONO ZENBAKIA(K): .....

AITA      AMA      LEGEZKO TUTOREA

IKASLEAREN IZEN ABIZENAK

.....

ADINA.....IKASTURTEA.....

PARTE HARTZEND(IT)UEN JARDUERA(K)

.....

.....

.....

Nire erantzukizunpean eskatzen dut nire seme alaba..... Guraso elkarteak antolatzen d(it)uen eskolaz kanpoko jardueretan onartua izatea.

..... GURASO ELKARTEAK emandako informazioa ezagutu eta irakurri dut, eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut. Halaber nahitaezko higiene eta prebentzio-neurri pertsonalak hartzeko konpromisoa adierazten dut.

..... 2021eko ..... n.

Sinadura: ama/aita/legezko tutorea